

Bizenta Mogel Elgezabal



Udalerria: Azkoitia (Gipuzkoa)

Jaiotze-data: 1782-06-06

Heriotza data: 1854-09-29

Lanbidea: Idazlea

Bizenta Mogel Elgezabal euskal idazlea

Bizenta Antonia Mogel Elgezabal Azkoitian jaio zen 1782an, eta euskaraz idatzi zuen lehen emakume moduan ezagutzen dugu. Garai hartan emakume oso gutxik zeukan ikasketak jasotzeko aukera. Mogelek, osaba Joan Antonio Mogelen aldetik jaso zituen ikasketak. Garai hartan ez zegoen ondo ikusia emakumeek idaztea, eta zenbaitetan gizonen izenean sinatzen zituen beraien lanak. 22 urte zituela, libreki eta euskaraz, 1804an *Ipui onac* kaleratu zuen.

Ipui onac, ceintzuetan arquiteuco dituzten euscaldun necazari ta gazte gueiac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco (1804, Undiano). Gipuzkerazko alegia-bilduma bat da, Esoporen latinezkoetatik berrogeitamar alegia itzuliak edo egokituak, prosaz. Alegia hauen ondoren, Bizentaren osabaren bertsoz jarritako beste zortzi datoz. Bizentaren alegiak hizkuntza ulerterraz eta atseginean daude idatziak, bere esanetan, ahalik eta irakurle gehienengana iristeko asmoz.

Euskarazko lehen fabula-liburua da hau. Garai hartan latinetik itzultzea ez zen lan makala, euskara arauturik ez zegoenez, euskalki desberdinen artean erabakitzea zaila baitzen. Bertsoak ere idatzi zituen. Euskara literarioaren eredia osabarengandik hartu zuen: garbia, kultua baina ulerterraza, ume eta baserriarrentzat idazten zuen eta. Fabulaz gain, iruzkin konprometituak idazten zituen, jauntxo eta baserriarren harremanak azpimarratuz, zintzotasuna eta mantsotasuna eskatuz.

Bizenta Mogelen garaiko usteen arabera, ahozko tradizioko ipuinak ez ziren egokiak, hauek ez zirelako moralaren aldetik behar bezain zuzenak. Ipuinek balio didaktikoa behar zuten, onak izango baziren.

Iturria: [Wikipedia](#) eta [Gaztezulo](#)

BIZENTA
MOGEL
ELGEZABAL



KALEA